



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2020ko urtarrilaren 10a

2. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### A SAILA:

##### **Foru lege proiektuak:**

- Foru Lege proiektua, Nafarroako 2018ko Kontu Orokorrei buruzkoa (3. or.).
- Foru Lege proiektua, 2017-2019 aldirako Toki Inbertsioen Plana arautzen duen abenduaren 13ko 18/2016 Foru Legearen indarraldia luzatzen duena (4. or.).
- Foru Lege proiektua, ingurumenean eragina duten jarduerak arautzen dituena. Zuzenketak aurkezteko epea luzatzea (5. or.).

#### C SAILA:

##### **Bestelako proposamenak:**

- Lege proposamena, Hauteskunde Araubide Orokorrari buruzko Lege Organikoa hein batean aldatzen duena. Navarra Suma talde parlamentarioak aurkeztu du (6. or.).

#### E SAILA:

##### **Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

- Interpelazioa, Lurralde Kohesiorako Departamentuak itzaleko bidesarien alorrean darabilen politika orokorrari eta azpiegiturak finantzatzeko sistema horrek Nafarroako kontu publikoetan dituen ondorioei buruzkoa. Pablo Azcona Molinet jaunak aurkeztu du (7. or.).
- Interpelazioa, unibertsitatez kanpoko irakaskuntza-mailetako hezkuntza baliabideen eskola-antolamendua dela-eta Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuak darabilen politika orokorrari buruzkoa. María Luisa De Simón Caballero andreak aurkeztu du (8. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da txosten xehakatu bat presta dezan elurte handien kasuan sortzen diren arazoei eta hartu beharreko neurriei buruz. Javier García Jiménez jaunak aurkeztu du (9. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Osasun Departamentua premiatzen da jaioberrien baheketa zabaldia ezar dezan. Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkeztu du (10. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Azagran DBHI berri bat eraiki dezan. Javier García Jiménez jaunak aurkeztu du (11. or.).

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da N-113 errepedea aldatzeko proiektu bat lehenbailehen diseina eta egin dezan. Javier García Jiménez jaunak aurkeztu du (12. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Osasun Departamentua premiatzen da geldiaraz dezan esparru-akordioa lizitzeko prozesua eta zuzenean eta baliabide berekien bidez eman dezan etxeko errehabilitazioa. Domingo González Martínez jaunak aurkeztu du (13. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Hezkuntza Departamentua premiatzen da alda dezan azaroaren 13ko 102/2017 Foru Agindua, Hezkuntza kontseilariarena, zeinaren bidez arautzen baitira Nafarroako Foru Komunitatean eskola-garraioaren antolaketa eta funtzionamendua eta eskola-jantokirako banakako laguntzak. EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioak aurkeztu du (14. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Hezkuntza Departamentua premiatzen da indartu dezan ospitaleratuta dauden edo etxeko arreta behar duten ikasleei laguntza emateko programa, 3tik 6 urtera bitarteko zikloa barne. Nafarroako Alderdi Sozialista eta Geroa Bai talde parlamentarioek eta Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoak aurkeztu dute (15. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere aldeotasuna agertzen baitio LGTBI+ kolektiboari eta bere elkartasuna adierazten baitio Koldo Martínez Urionabarrenetxea senatari autonomikoari. Eledunen Batzarrak onetsia (17. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak adierazten baitu Estatuko erakundeak aldeztu dituela eta haiekin argiro identifikatzen dela. Eledunen Batzarrak onetsia (17. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak erabat errefusatzeko baitu pasa den azaroan zenbait gizonen emakume bati Orkoien eta Iruñean eginiko sexu eraso eta bere elkartasuna eta aldeotasuna agertzen baitie biktima izandako emakumeari eta haren familiari. Eledunen Batzarrak onetsia (18. or.).

**F SAILA:****Galderak:**

- Galdera, Nafarroako enpresek azken 15 urteetan aitortutako enpresa-galeren guztizko kopuruari buruzkoa. María Luisa De Simón Caballero andreak egin du (19. or.).
- Galdera, atletismoa pista estalian egin eta horretan entrenatzea ahalbidetuko duten azpiegiturak eraikitze aukera ezberdinen kostuari buruzkoa. Maiorga Ramírez Erro jaunak egin du (20. or.).
- Galdera, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko fisioterapeuta izateko lan-eskaintza publikoari buruzkoa. Cristina Ibarrola Guillén andreak egin du (20. or.).
- Galdera, aberaste bidegabearen egoeran dagoen “San Juan de Dios Ospitalearekin itundutako zerbitzuak” izeneko kontratuari buruzkoa. Bakartxo Ruiz Jaso andreak egin du (21. or.).
- Galdera, gizarte zerbitzuetan politika publikoetako beste esparru batzuekin integratutako lana bultzatzeko lan-ildoei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (22. or.).

---

**A saila:**  
**FORU LEGE PROIEKTUAK**

---

## **Foru Lege proiektua, Nafarroako 2018ko Kontu Orokorrei buruzkoa.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko urtarrilaren 7an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, bestek bestek:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 18. artikuluan ezarritakoa betez, Nafarroako Gobernuak, 2019ko ekainaren 26an hartutako erabakiaren bidez, Nafarroako 2018ko Kontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektua igorri du Nafarroako Parlamentura. Hari buruz, Kontuen Ganberak txosten bat eman du, 2019ko abenduaren 4ko 44. Nafarroako Parlamentuko Aldikari Ofizialean argitaratua.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 157. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Baztarrari entzun ondoren, hona

### **ERABAKIA:**

**1.** Xedatzea Nafarroako 2018ko Kontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektua Legebiltzarraren Osoko Bilkuran irakurketa bakarreko prozeduraz izapidetu dadin (10-19/LEY-00006).

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldikari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

## **Nafarroako 2018ko Kontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektua**

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 18. artikuluan xedatutakoari jarraituz, Diputazioari dagokio Aurrekontu Orokorrek prestatu eta Kontuak formalizatzea Parlamentuan aurkezteko, bertan eztabaidatu, zuzendu eta, hala erabakiz gero, onets daitezten. Hori guztia, foru legeetan ezarritakoari jarraituz.

Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 123. artikulua Ogasuneko eta Finantza Politikako Departamentuaren esku uzten du Nafarroako kontu orokorren formulazioa. Horiek, behin Nafarroako Gobernuak onetsitakoan, Nafarroako Parlamentura behar dira igorri dagokion foru lege proiektuaren bidez, aipatutako foru legearen 130. artikuluan ezarri bezala.

Nafarroako Gobernuak eginak ditu 2018ko ekitaldiko kontu orokorrei buruz adierazitako tramiteak, Kontuen Ganberak emana du behar den irizpena eta izapidetua dago Nafarroako 2016ko Kontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektua Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 154. artikuluan ezarritako prozedurari jarraituz. Bidezko da, beraz, foru lege hori onestea.

**Artikulu bakarra.** Onesten dira Nafarroako 2018ko kontu orokorrak, Ogasuneko eta Finantza Politikako Departamentuak formulatu eta Nafarroako Gobernuak onetsiak, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 130. artikuluan ezarritakoaren arabera. Kontuon edukia Nafarroako Atarian emanen da argitara.

## **Foru Lege proiektua, 2017-2019 aldirako Toki Inbertsioen Plana arautzen duen abenduaren 13ko 18/2016 Foru Legearen indarraldia luzatzen duena.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko urtarrilaren 7an egindako bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artikulua aitortzen dion legegintza-ekimena erabiliz, Nafarroako Gobernuak, 2019ko abenduaren 18an hartutako Erabakiaren bidez, 2017-2019 aldirako Toki Inbertsioen Plana arautzen duen abenduaren 13ko 18/2016 Foru Legearen indarraldia luzatzen duen Foru Lege proiektua igorri dio Nafarroako Parlamentuari.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 158. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Bartzarrekin adostu ondoren, hona ERABAKIA:

**1.** 2017-2019 aldirako Toki Inbertsioen Plana arautzen duen abenduaren 13ko 18/2016 Foru Legearen indarraldia luzatzen duen Foru Lege proiektuaren izapidetzea zuzeneko eta irakurketa bakarrekoa izateari buruzko erabakia Osoko Bilkuraren esku jartzea.

**2.** Zuzenketak aurkezteko epe bat irekitzea, eztabaidari ekiteko Osoko Bilkuraren egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan bukatuko dena. Zuzenketak Legebiltzarreko Mahaiari aurkeztu beharko zaizkio.

**3.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

## **Foru Lege proiektua, 2017-2019 aldirako Toki Inbertsioen Plana arautzen duen abenduaren 13ko 18/2016 Foru Legearen indarraldia luzatzen duena**

### ZIOEN AZALPENA

Nafarroak toki administrazioaren arloan duen eskumen historikoa baliatuz eman zen Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea.

Aipatutako arauaren 61.1 artikuluan xedatutakoarekin bat, Nafarroako Gobernuak, hartarako gaitasuna ematen dion foru lege baten esparruan, inbertsio planak ezartzen ditu, toki entitateekin lankidetzan aritzeko tresna gisa, Nafarroako

lurralde osoan nahitaezko udal zerbitzuak bermatzeko helburuarekin.

Agindu horretan xedatutakoa aplikatuz eman zen abenduaren 13ko 18/2016 Foru Legea, 2017-2019 aldirako Toki Inbertsioen Plana arautzen duena, 100 milioi euroko aurrekontu zuzkidurarekin.

2017-2019 aldiko ekitaldietako bakoitzean, Toki Administrazioaren eta Despopulazioaren Zuzendaritza Nagusiak geroko ekitaldien kargurako gastua baimentzen eta konprometitzen du, finkatutako urteko gehieneko diru-mugak gainditu gabe; konpromiso ekonomikoak, berriz, egozten dira ordainketen aurreikuspenaren eta lanen exekuzioaren arabera.

Betetzeko dauden konpromisoen egozpena eta betebeharren tramitazioarako egungo aurreikuspenak ikusita, ezinezkoa izanen da 2019ko ekitaldian bukatzea 2017-2019 aldirako Toki Inbertsioen Planean jasotako lanak.

Bestalde, foru legean ezarrita dagoenez, konpromiso horiei erantzuteko behar diren zenbatekoak bermatuta daudenean, beste jarduketak batzuei helduko zaie, erreserban dauden inbertsioetan dagoen lehentasun ordenari jarraikiz, eta, horrez gain, litekeena da presako lanak egiteko eskaerei ere aurre egin behar izatea.

Hori guztia dela eta, beharrezkoa da luzatzea 2017-2019 aldirako Toki Inbertsioen Plana arautzen duen abenduaren 13ko 18/2016 Foru Legearen indarraldia, eta horrela aukera emanen da, plan berri bat onetsi arte, indarreko planean sartutako inbertsio finantzarri guztien konpromisoak baimendu eta egozteko eta ordainketak egiteko.

**Artikulu bakarra.** 2017-2019 aldirako toki inbertsioen plana arautzen duen abenduaren 13ko 18/2016 Foru Legearen indarraldia luzatzea.

Luzatzen da 2017-2019 aldirako Toki Inbertsioen Plana arautzen duen abenduaren 13ko 18/2016 Foru Legearen indarraldia, eta horrela aukera ematen da, plan berri bat onetsi arte, indarreko planean sartutako inbertsio finantzarri guztien gastu konpromisoak baimendu eta egozteko eta ordainketak betebeharrak betetzeko.

**Xedapen indargabetzaile bakarra.** Arauak indargabetzea.

Indargabetu egiten dira foru lege honetan xedatutakoari aurka egiten dioten maila bereko edo apalagoko xedapen guztiak.

**Azken xedapen bakarra.** Indarra hartzea.

Foru lege honek 2020ko urtarrilaren 1ean hartuko du indarra.

---

## **Foru Lege proiektua, ingurumenean eragina duten jarduerak arautzen dituena.**

### **ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEA LUZATZEA**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko urtarrilaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, ondoko erabakia hartu zuen, besteak beste:

**1.** Ingurumenean eragina duten jarduerak arautzen dituen Foru Lege proiektuari zuzenketak aurkezteko epea **2020ko urtarrilaren 31ko eguerdiko hamabiak arte** luzatzea. Aipatu foru

lege proiektua 2019ko abenduaren 13ko 49. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen (10-19/LEY-00017).

**2.** Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

---

**C saila:**  
**BESTELAKO PROPOSAMENAK**

---

## **Lege proposamena, Hauteskunde Araubide Orokorrari buruzko Lege Organikoa hein batean aldatzen duena.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko urtarrilaren 7an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dien legegintza-ekimena erabiliz, eta Espainiako Konstituzioaren 87.2 artikulua babesan, Navarra Suma talde parlamentarioak Hauteskunde Araubide Orokorrari buruzko Lege Organikoa hein batean aldatzen duen Lege proposamena aurkeztu du (10-19/PRC-00004).

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 148. eta 212. artikuluetan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrak erabakia hartu ondoren, hona ERABAKIA:

**1.** Hauteskunde Araubide Orokorrari buruzko Lege Organikoa hein batean aldatzen duen Lege proposamena izapidera onartzea eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**2.** Lege proposamena Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

## **Hauteskunde Araubide Orokorrari buruzko Lege Organikoa hein batean aldatzen duen Lege proposamena**

### ZIOEN AZALPENA

Kongresuak 2011ko urtarrilaren 30ean onetsi zuen Hauteskunde Araubide Orokorrari buruzko 8/1985 Lege Organikoaren 75. artikulua aldatzea. Aldaketa horrek ezartzen duenez, "atzerrian bizi diren egoiliarren hautesle-eroldan izena emandako espainiarrek Hautesle Erroldaren Bulegoaren probintzia-ordezkaritzari zuzendutako inprimaki ofizial bidez aurkeztu beharko dute botoa emateko eskabidea". Aldaketa horren xedea zen berme gehiago ematea Espainiatik kanpo bizi diren hautesleei; praktikan, ordea, nabarmen zaildu du boto-eskubidea baliatu ahal izatea, eta parte-hartzea asko jaitea eragin du.

**Artikulu bakarra.** Indargabetu egiten da Hauteskundearen Araubide Orokorrari buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 75. artikulua aldatzea, zeina 2011ko urtarrilaren 30eko erreforman egin baitzen (2/2011 LO).

**Azken xedapen bakarra.** Foru lege honek argitara eman eta biharamunean hartuko du indarra.

---

**E saila:**  
**INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

**Interpelazioa, Lurralde Kohesiorako Departamentuak itzaleko bidesarien alorrean darabilen politika orokorrari eta azpiegiturak finantzatzeko sistema horrek Nafarroako kontu publikoetan dituen ondorioei buruzkoa.**

*PABLO AZCONA MOLINET JAUNAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko urtarrilaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Pablo Azcona Molinet jaunak aurkezturiko interpelazioa, Lurralde Kohesiorako Departamentuak itzaleko bidesarien alorrean darabilen politika orokorrari eta azpiegiturak finantzatzeko sistema horrek Nafarroako kontu publikoetan dituen ondorioei buruzkoa.

2. Interpelazio hori Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**INTERPELAZIOAREN TESTUA**

Geroa Bai talde parlamentarioko foru parlamentari Pablo Azcona Molinet jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako interpelazio hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Lurralde Kohesiorako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Lurralde Kohesiorako Departamentuak itzaleko bidesarien alorrean darabilen politika orokorrari eta azpiegiturak finantzatzeko sistema horrek Nafarroako kontu publikoetan dituen ondorioei buruzko interpelazioa.

Iruñean, 2019ko abenduaren 19an

Foru parlamentaria: Pablo Azcona Molinet

## **Interpelazioa, unibertsitatez kanpoko irakaskuntza-mailetako hezkuntza baliabideen eskola-antolamendua dela-eta Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuak darabilen politika orokorrari buruzkoa.**

*MARÍA LUISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko urtarrilaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Luisa De Simón Caballero andreak aurkezturiko interpelazioa, unibertsitatez kanpoko irakaskuntza-mailetako hezkuntza baliabideen eskola-antolamendua dela-eta Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuak darabilen politika orokorrari buruzkoa.

2. Interpelazio hori Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **INTERPELAZIOAREN TESTUA**

Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoko eledun Marisa de Simón Caballerok, Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, interpelazio hau aurkeztu dio Hezkuntzako kontseilari Jimeno jaunari, Eledunen Batzarraren eztabaidatu eta bozkatzeko:

Interpelazioa, unibertsitatez kanpoko irakaskuntza-mailetako hezkuntza baliabideen eskola-antolamendua dela-eta Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuak darabilen politika orokorrari buruzkoa.

Hezkuntzarako sarbidea kalitate nahiz ekitate balditzetan egiten dela, botere publikoek bermatu behar dute, batik bat hezkuntza-baliabide publikoen bidez.

Horrek esan nahi du hezkuntza-baliabideen antolamendu-egitura bat zehaztu beharra dagoela, hezkuntzarako sarbidea sustatuko duen curriculum-esparru batez gain, halako moduan non baliabide horiek herritar guztiei ikaspostu bat eskuratuko dieten, ikasleei ahalbidetuko diena hezkuntza-etapa bakoitzeko helburu orokorrak erdiestea, kalitate eta ekitate baldintza beretan. Alegia, Nafarroarako curriculumeko dekretuetan zehaztutako hezkuntza-xedeei erantzunen dien eskola-antolamendu bat taxutzea da helburua.

Hori dela-eta, eskola-antolamenduaren gaineko hezkuntza-plangintzari buruzko honako interpelazio hau aurkezten diogu Nafarroako Gobernuari:

– Eskolatzeko orekatu bateranzko eta eskola-umeen ingurune sozialean txertaturiko eskola anitz bat eraikitzeranzko aurrerapausoak emateko eskolatzeko-politika. Zehazki, ikasleak onartzeko araudia eta ikastetxe publikoen eragin-eremua zehazten duen araudia.

– Eremuan eremuko eta tokian tokiko ikasleen eskolatzeko-beharrizanei erantzun bat emanen dien eskola-eraikuntzen politika.

– Ikasleen diskriminazio-mota oro ekiditeko itun-politika.

Iruñean, 2019ko abenduaren 30ean

Foru parlamentaria: Marisa De Simón Caballero



## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da txosten xehakatu bat presta dezan elurte handien kasuan sortzen diren arazoei eta hartu beharreko neurriei buruz.**

*JAVIER GARCÍA JIMÉNEZ JAUNAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko urtarrilaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier García Jiménez jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita txosten xehakatu bat presta dezan elurte handien kasuan sortzen diren arazoei eta hartu beharreko neurriei buruz.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **MOZIOAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Javier García Jiménez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko, neguan Nafarroako errepideetan urtero elurrak sortzen dituen problemei aurre egiteko kontrol- eta informazio-bitartekoen beharrari buruzkoa.

Ikusirik neguan Nafarroako errepideetan gure erkidegoko elurteengatik urtero sortzen diren problemak –azken urteotan elurraengatik dozenaka gorabehera eta istripu izan dira– eta begi-bistako koordinazio-akatsak, kontrol- eta informazio-bitartekoen eskastasuna eta itxuraz dagoen makina-urritasuna. Beharrezko deritzogu gure errepideetan negualdirako dagoen protokoloa berrikusteari.

Horrelako arazoak lehenago ere maiz gertatu direnez, beharrezkoa da Nafarroako Gobernuak neurri berriak hartzea haiek konpontzeko; izan ere, oraindik garaiz gaude negu honetan gure erkidegoan egonen diren elurteen ondorioz ezbeharririk jasan behar ez izateko.

Hori dela-eta, honako erabaki proposamen hau aurkezten dugu:

1. Txosten xehakatu bat egitea elurte handien-gatik sortzen diren problemei eta problema horiek murrizteko edo leuntzeko hartu beharreko neurriei buruz, bai eta neurri horien kostu ekonomikoari buruz ere, eta txosten hori Nafarroako Parlamentuari aurkeztea.

2. Neurri horiek gure erkidegoko errepide garrantzitsuetan areagotu ditzan, horietan suertatzen baitira kalteturik ibilgailurik gehienak, eta elurteak maizen gertatzen diren eskualdeetan: A-1, A-10, A-15, A-12, A-21, PA-30etik 34ra (ingurabideak).

3. Munta handieneko errepideetan informazio aldagarriko panel gehiago eta trafikoaren egoera behatzeko kamera gehiago jartzea.

4. Aurreikusitako baldintza meteorologikoei buruz herritarrei eskainitako informazioa hobetzea, eta haien sentsibilizazioa handitzen ahalegintzea, behar diren aurreneurriak har ditzaten baldintza zailetan zirkulatzeari begira.

5. Ahaleginen koordinazio hobea bultzatzea kidego, babes zibileko eta segurtasuneko indar eta errepide garbiketarako baliabide guztien artean, egun hauetan bizi ohi diren bezalako egoeretan, eta une oro duten informazioaren koordinazioa ere bai, barne harturik autonomia erkidego mugakideetako eta Larrialdi Unitate Militarrena.

Iruñean, 2019ko abenduaren 12an

Foru parlamentaria: Javier García Jiménez

## **Mozioa. Horren bidez, Osasun Departamentua premiatzen da jaioberrien baheketa zabaldua ezar dezan.**

*CRISTINA IBARROLA GUILLÉN ANDREAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko urtarrilaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Osasun Departamentua premiatzen baita jaioberrien baheketa zabaldua ezar dezan.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **MOZIOAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari den Cristina Ibarrola Guillén andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Jaioberrien screening programek gaixotasun endokrino-metabolikoen diagnostiko goiztiarra eta tratamendu-ezarpen goiztiarra ahalbidetzen dute, halatan modua emanik haurren bizi-kalitatea nabarmen hobetzeko. Kasu askotan programa horiei esker, haur horiek normaltasun osoa lortzen dute. Programa horien ezarpena neurri eraginkorra da haur-populazioan ezgaitasun fisikoaren eta psikikoaren intzidentzia murrizteko.

Urriaren 31ko SSI/2065/2014 Aginduak aldatu egin zituen Osasun Sistema Nazionaleko zerbitzu komunoren zorroa eta hura eguneratzeko prozedura ezartzen dituen irailaren 15eko 1030/2006 Errege Dekretuaren I, II eta III. eranskinak. Aginduak

Osasun Sistema Nazionaleko laguntza-zerbitzuen oinarritzko zorro komuna zehazten eta eguneratzen du, besteak beste gaixotasun horien screeningari dagokionez, eta ezartzen ditu Osasun Sistema Nazionaleko laguntza-zerbitzuen oinarritzko zorro komuneko den jaioberrien gaixotasun endokrino-metabolikoen screening programan sartzen diren zazpi gaixotasunak.

Osasun Sistema Nazionalaren iraunkortasuna bermatzeko eta haren prestazioen kalitatea eta segurtasuna hobetzeko presako neurri buruzko apirilaren 20ko 18/2012 Errege Dekretuak aldatu egin zuen Osasun Sistema Nazionaleko zerbitzu-zorro komuna, eta ezartzen du autonomia erkidegoek zilegi izanen dutela beren zorro osagarrian sartzeko zorro komunean ez dauden teknika, teknologia edo prozedurak.

Halatan, hamar autonomia erkidegok, bai eta Ceuta eta Melillako hiri autonomoek ere, "jaioberrien screening hedatua" deiturikoa ezarri dute, jaioberrien screening programetan sarturiko gaixotasunen kopuru handiagoarekin, oinarritzko zorroko screening programan sarturiko zazpiez gainera.

Nafarroak patologia berri bat sartu du screeningean 2019ko urritik aurrera, biotinidasa defizita, baina beste autonomia erkidego batzuekiko inekitate-egoera nabarmen batean segitzen du.

Horregatik guztiagatik, honako erabaki proposamen hau aurkezten dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuko Osasun Departamentua premiatzen du jaioberrien screening hedatua abiaraztera, urtebeteko epean halako gaixotasun-kopurua ezarritik non parean jarriko baikara nazio-mailan programa hauetan lider diren autonomia erkidegoekin.

Iruñean, 2019ko abenduaren 16an

Foru parlamentaria: Cristina Ibarrola Guillén

## Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Azagran DBHI berri bat eraiki dezan.

JAVIER GARCÍA JIMÉNEZ JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko urtarrilaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier García Jiménez jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Azagran DBHI berri bat eraiki dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari den Javier García Jiménez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko, Azagrako hezkuntza-premiei eta egungo errealitateari buruzkoa.

Azagra Lizarrako merindadean kokaturiko herri bat da, Ebro Garaiko Erriberan, eta Iruñetik 77 kilometrotara dago. 2018an 3853 biztanle zeuzkan, eta bertan honako ikastetxe hauek aude: Otik 3 urtera bitarteko udal ikastetxea, Haur eta Lehen Hezkuntzako "Francisco Arbeloa" ikastetxe publikoa eta "Reyno de Navarra" DBHla.

Azagrako "Francisco Arbeloa" ikastetxea bi eraikinetan banatuta dago: bata Haur Hezkuntzako ikasleentzako, eta bestea Lehen Hezkuntzarako. Bien artean 200 bat metroko distantzia dago. Bestalde, Lehen Hezkuntzak eraikina partekatuta dauka "Reyno de Navarra" Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Institutuarekin.

"Francisco Arbeloa" Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoak 380 ikasle baino gehiago dauzka ikasturte honen hasieraz geroztik.

Horietatik, % 40 inguru atzerrian sortutakoak eta hezkuntza-premia berezidunak dira.

Ikasle gehien-gehienak Azagrakoak dira, baina ikastetxeak badauka aparteko ikasgela bat ere, inguruko herrietako ikasleak hartzen dituena, hala nola San Adrián, Lodosa eta Sartagudakoak.

Azken urteotan ohikoa izan da ikasle gehiago atxikitzea ikasturtean zehar, eskolatze berantiarra tarteko. Horrek are zailagoa bihurtzen du klase horietako irakaskuntza, eta agerian uzten du nolako premia dagoen instalazioak ikastetxearen egungo errealitateari doitzeko.

Ikasgunearen antolaketa ezinbesteko faktore bat izan arren, Azagrako herriak gaur egun dituen hezkuntza-instalazioak ez dira bertako premien araberakoak.

Lehen hezkuntza eta bigarren hezkuntza irakas-aldi desberdinak dira, gehienbat bi erakunde desberdinetan egiten direnak, antolaketa-kultura desberdinekin eta jarrera orobat bestelakoekin. Azagrako Lehen Hezkuntzako ikasleek eraikina partekatuta daukate "Reyno de Navarra" Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Institutuarekin, eta horrek oztopatu egiten du guneak apailatzea.

Hori dela-eta, honako erabaki proposamen hau aurkezten dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

1. Azagrako hezkuntza-komunitate osoak DBHI berri bat eraikitzeari buruz eginiko errebinkazioak aldeztara eta bere egitera.

2. Lehenbailehen eraikin publiko bat egin dezan, Azagran Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasketak kalitate-irizpideei jarraituz eman ahal izateko behar diren ikasgelak eta instalazioak izanzen dituena.

3. Horretarako beharrezkoa den diru-zuzkidura Nafarroako 2020ko Aurrekontu Legean jaso dezaten.

Iruñean, 2019ko abenduaren 19an

Foru parlamentaria: Javier García Jiménez

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da N-113 errepi-dea aldatzeko proiektu bat lehenbailehen diseina eta egin dezan.**

### *JAVIER GARCÍA JIMÉNEZ JAUNAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko urtarrilaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Javier García Jiménez jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita N-113 errepidea aldatzeko proiektu bat lehenbailehen diseina eta egin dezan.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **MOZIOAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Javier García Jiménez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita N-113 errepidea aldatzeko proiektu bat urgentziaz taxutu eta exekuta dezan.

Ebro ibaiak Nafarroan zehar izan ohi dituen goraldiek gainezkatzekak eragiten dituzte; halatan, nahiko maiz inguruko lurak urpean gelditu ohi dira, eta kalteak sortu ohi dira nekazaritza-azpiegitura, labore eta errepide garrantzitsuetan.

Ezin konta ahala eragin jasan ditu uholdeengatik N-113 errepideak Castejongo tartean (Iruña-Madril, 75. kilometro-puntuan). Ia urtero, zenbait aldiz etenda gelditzen da errepidea. Horrek arazo larriak ekartzen dizkie errepide hori lanera joateko edo inguruetatiko herrietara hurbiltzeko egunero

erabiltzen duten pertsoneri eta beren eguneroko jarduna errepide horren egoeraren baitan daukaten enpresei.

Joan den legegintzaldian zehar parlamentu honek ekimen bat onetsi zuen, aurreko Nafarroako Gobernua premiatzen zuena urgentziaz taxutu zezan N-113 errepidea 76. eta 77. kilometro-puntuen artean, Castejongo mugapean, aldatzeko proiektu bat. Gaur den egunean, urrats gutxi egin dira errepidearen urperatzea ekidite aldera Ebro ibaiak gainezka egitearen kasuetan.

Orain arte, egungo Gobernuak zenbait alternatiba izan ditu gogoan, baina ez dago ez proposamen ez jarduketa zehatzik egoera hori zuzentzeko, errepide hori oinarritzkoa den arren jarduera ekonomikoa eta Erriberako herrien eta Castejonen arteko hartu-eman soziala errazteko eta osasun eta hezkuntza arloko oinarritzko zerbitzuetarako irismena ziurtatzeko. Egiten diren ekintzak uholdearen ostean egin ohi dira.

Ebroko Konfederazio Hidrografikoak hainbat urrats egin ditu Nafarroan uholdeak prebenitzeko (N-113 errepidea, Castejongo mugapean), 2018an izandako ezohiko uraldien ondoren.

Hori guztia dela-eta, honako erabaki proposamen hau aurkezten dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

**1.** Urgentziaz taxutu eta exekuta dezan N-113 errepidea aldatzeko proiektu bat, Castejongo mugapean 76. kilometro-puntutik 77. kilometro-punturainoko tarteari ekitekoa.

**2.** Horretarako beharrezkoa den diru-zuzkidura Nafarroako 2020ko Aurrekontu Legean jaso dezan.

Iruñean, 2019ko abenduaren 19an

Foru parlamentaria: Javier García Jiménez

## **Mozioa. Horren bidez, Osasun Departamentua premiatzen da geldiaraz dezan esparru-akordioa lizitzatzeko prozesua eta zuzenean eta baliabide berekien bidez eman dezan etxeko errehabilitazioa.**

### *DOMINGO GONZÁLEZ MARTÍNEZ JAUNAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko urtarrilaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Domingo González Martínez jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Osasun Departamentua premiatzen baita geldiaraz dezan esparru-akordioa lizitzatzeko prozesua eta zuzenean eta baliabide berekien bidez eman dezan etxeko errehabilitazioa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **MOZIOAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko Txomin González Martínez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Joan den abenduaren 10ean, Osasuneko kontseilari Santos Indurain andreak agerraldia egin zuen Osasun Batzordean, azaltze aldera zein den gaur egungo egoera eta bere departamentuak zerurrats egingen dituen Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren Gaitasun Funtzionala Hobe-tzeko Planean jasotzen diren egoitzasusperraldiko oheen eta etxeko errehabilitazioaren proiektua dela-eta. Aipatu agerraldian iragarri zuen etxeko errehabilitazioaren zerbitzu berria lizitatu eta pribatizatze erabakia. Hasieratik desados gaude planteamendu horrekin, eta uste dugu okerra dela etxeko errehabilitazioa abiarazteko aukera bakar gisa haren lizitazioa eta enpresa pribatu baten eskutiko zerbitzua erabiltzea.

Fisioterapia-zerbitzua behar duten herritarren etxera zerbitzu hori eramatea beharrezkoa eta egokia dela ados gaude, Oinarrizko Osasun

Laguntzako Estrategiak ezartzen duenaren ildotik, baina ez zerbitzua baliabide propioen bitartez emateari uko egitearen kontura.

Zentzuzkoen deritzoguna da Oinarrizko Osasun Laguntzako taldeak fisioterapiako profesionalen indartzea, horrela praktikan jarri osasuneko zuzendaritzak hainbeste aldiz errepikaturiko diskurtsoak eta filosofiak, hala nola "laguntza integrala" eta "diziplinartekotasuna", utz diezaiozen apainkeria politikorako kontzeptu mamigabe hutsizateari.

Gainera, iragarritako erabakia arriskutsua iruditzen zaigu, eta azken urteotan sustatu izan diren politiketatik aldentzen da; izan ere, azkenaldian honetan hainbat zerbitzu berreskuratu dira sektore publikorako, hala nola Nafarroako Ospitaleguneko sukaldeen kudeaketa, Osasun Mentaleko zerbitzu batzuk, Tuterako erresonantzia magnetikoa, kokleako inplanteen ezarpena, dentsitometriak egitea eta abar.

Gure ustez, horixe da, hain zuzen, egin beharreko bidea: zerbitzu pribatizatuak ahal den heinean despribatizatzea eta ezein zerbitzu berri ez pribatizatzea, zerbitzu publikoari eta zerbitzuaren kalitateari dakarkion galeragatik.

Hori guztia dela eta, ondoko erabaki proposamena aurkezten dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Osasun Departamentua premiatzen du esparru-akordioa lizitzatzeko prozesua geraraz dezan eta zuzenean eta Osasunbidearen baliabide berekiekin eman dezan etxeko errehabilitazioaren zerbitzua.

2. Nafarroako Parlamentuak Osasun Departamentua premiatzen du ezein zerbitzu berri ez pribatizatze konpromisoa har dezan, eta, subsidiarotasun-printzipioa eta sistema publikoaren aldeko apustua gidari harturik, premiatzen du enpresa pribatuekiko hitzarmen eta kontratu guztiak berrikus ditzan, zerbitzu jadanik pribatizatuak sektore publikoarentzat ahal den neurrian berreskuratze aldera.

Iruñean, 2019ko abenduaren 29an

Foru parlamentaria: Txomin González Martínez

**Mozioa. Horren bidez, Hezkuntza Departamentua premiatzen da alda dezan azaroaren 13ko 102/2017 Foru Agindua, Hezkuntza kontseilariarena, zeinaren bidez arautzen baitira Nafarroako Foru Komunitatean eskola-garraioaren antolaketa eta funtzionamendua eta eskola-jantokirako banakako laguntzak.**

*EH BILDU NAFARROA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko urtarrilaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Hezkuntza Departamentua premiatzen baita alda dezan azaroaren 13ko 102/2017 Foru Agindua, Hezkuntza kontseilariarena, zeinaren bidez arautzen baitira Nafarroako Foru Komunitatean eskola-garraioaren antolaketa eta funtzionamendua eta eskola-jantokirako banakako laguntzak.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**MOZIOAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko ele-dun Bakartxo Ruiz Jaso andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Joan den abenduaren 12an, Zizur Nagusiko Udalak ziurtagiri bat igorri zuen Nafarroako Parlamentura, bai eta Hezkuntza Baliabideen Zuzendaritzara ere, udal horretako udalbatzak onetsitako adierazpen instituzionalaren testuarekin.

Hartan, kasuko finantzaketa eskatzen da Ardoi auzotik eta Zizur Nagusiko alde zaharretik herriko ikastetxeetarako eskola-garraiorako, "halatan bermaturik ekitate, berdintasun eta doakotasun printzipioak, eta errazturik ikasleak udalerrian bertan erroturik egon daitezen".

Eskaera horren justifikazioa dira herriko ikastetxe publikoetara doazen adingabeek ibili behar

izaten dituzten distantziak, ezen, gainera, Donejakue Bideko Autobidea (A12) zeharkatu behar izaten dute, zeinak erdibitu egiten baitu herria. Hala-bera adierazten da ikasle horiek prezio altua ordaindu behar izaten dutela guraso-elkarteek antolaturiko eskola-garraioarengatik, edo ibilgailu partikularra erabili, egoera horrek trafikoari eta kutsadurari begira dakartzan ondorioekin.

Indarreko araudiak eskola-garraioaren ikasle onuradun gisa aitortzen ditu zenbait baldintza betetzen dituzten eta eskola-zonifikazioaren arabera dagokien ikastetxe publikoan eskolatzeko herriarteko garraioa beharrezkoa dutenak. Hala ere, baita herri baten barrenean ere irisgarritasun-problema daude, arrazoi ezberdinak direla-eta. Hain zuzen, eskaera horrek aldezen zabala dauka ez Zizur Nagusian bakarrik, baita beste herri batzuetan ere, hala nola Tafallan edo Berriozarren, antzeko segurtasun- eta irisgarritasun-problema baitaude beren herrigunearen barrenean, autobideek edo trenbideek zeharkatuta baitaude.

Errebindikazio horretaz gain, landa-eremutik ere hainbat mozio onetsi izan dira azken urteotan udalerrira, zeinen bidez eskola-garraioko zerbitzua exigitzen baita Iruñeko ikastetxe publikoetan batxilergoko nahiz lanbide heziketako ikasketak egiten ari diren 16tik 18 urtera bitarteko ikasleentzat, landa-eremuaren despopulaketa ekiditeko funtsezko neurri gisa ere, hezkuntza-irisgarritasuneko berdintasunari dagozkion arrazoiengatik ez ezik.

Gaur egun, problema hau samurtze aldera, familiek, udalek eta baita Hezkuntza Departamentuak berak ere irtenbide partzialetara jo dute, hala nola taxiak, familien artean auto partikularrak txandakatzea, derrigorrezko hezkuntzako eskola-garraioa aprobetxatzea toki hutsak egonez gero, eta abar; baina udalek urteak daramatzate despopulaketa geldiaraziko duen soluziobide integral bat eskatzen.

Hezkuntza Departamentuko aurreko taldeak konpromisoa hartu zuen errebindikazio horri ikuspegi ekonomiko nahiz antolaketako batetik erantzuteko modua aztertzeko. Eta horixe da, gure iri-

tziz, Departamentuak jorratu beharko lukeen ildo.

Hori guztia dela eta, ondoko erabaki proposamena aurkezten dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua premia-tzen du Hezkuntza kontseilariaren azaroaren 13ko 102/2017 Foru Agindua alda dezan, zeinak arautzen baititu eskola-garraioaren funtzionamendua eta banakako jantoki-laguntzak Nafarroako Foru Komunitatean, halako moldez non 2. artikuluan gehituko baitira, eskola-garraioaren ikasle onuradun gisa, beren herrietan dagokien ikastetxe publikoan eskolatzeko segurtasun- eta irisgarritasun-arazo objektibo eta justifikatuak dauzkatenak. 2020ko aurrekontuen proiektuan neurri horren ondoriozko gastua aurreikusiko da.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premia-tzen du beharrezkoak diren irtenbideak azter eta ezar ditzan Batxilergoa nahiz Lanbide Heziketa ikasketak egite aldera landa-eremuetatik Iruñera joan beharra daukaten 16tik 18 urtera bitarteko ikasleentzako eskola-garraioa ahalbidetzeko. Alderdi ekonomiko eta antolaketa-koaz gain, neurri honen premia aintzat hartuko da lurralde-kohesiorako eta despulaketa-aren aurka-ko borrokarako mesedegarria izatearen aldetik; halatan, helburu horietarako departamentu-arte-ko lantalde bat sortuko da, Nafarroako Udalerri eta Kontzejuen Federazioaren parte-hartzea ere izanen duena. Ateratako konklusioak eta emaitza gisa iritsitako proposamen ekonomiko eta antolaketakoa urtebeteko gehieneko epean egonen dira prestatuta, jarraian aplikatuak izateko.

Iruñean, 2019ko abenduaren 26an

Foru parlamentaria: Bakartxo Ruiz Jaso

## **Mozioa. Horren bidez, Hezkuntza Departamentua premia-tzen da indartu dezan ospitaleratuta dauden edo etxeko arreta behar duten ikasleei laguntza emateko programa, 3tik 6 urtera bitarteko zikloa barne.**

*NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA ETA GEROA BAI TALDE PARLAMENTARIOEK ETA IZQUIERDA-EZKERRA TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK AURKEZTU DUTE*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko urtarrilaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Alderdi Sozialista eta Geroa Bai talde parlamentarioek eta Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Hezkuntza Departamentua premia-tzen baita indartu dezan ospitaleratuta dauden edo etxeko arreta behar duten ikasleei laguntza emateko programa, 3tik 6 urtera bitarteko zikloa barne.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzeko, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **MOZIOAREN TESTUA**

Behean sinatzen duten talde parlamentarioek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Nafarroako Eskola Kontseiluak "0tik 6 urtera bitarteko Haur Hezkuntza" etapari buruz 2016an argitaratutako monografikoan elkarriketa oso interesagarria egin zitzaion Maddalena Tedeschi-ri, Reggio Emiliako udalaren haur eskoletako ekipo psikopedagogikoko koordinatzaile pedagogikoa eta Centro Internazionale Loris Malaguzziko Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeko pedagogo denari. Haur Hezkuntzan eginiko inbertsio publikoa indartzeko arrazoiei buruz galdetu zitzaionean, honako hau erantzun zuen:

"Lau kontu garrantzitsu aipa ditzakegu. Lehen-dabizikoa neurozientzien mundutik dator. Zenbait neurologok esaten dute ez garela berezko ahalmenekin jaiotzen, badirela joera genetiko batzuk, baina denok dauzkagula ahalmen potentzial amai-gabeak. Baina ahalmen horiek ez badira haur-tzaroan aktibatzen —esperimentzien bidez, imita-

zioen bidez, erretikulazioa edo garunaren neuro-na-sarea errazten duten bideen bitartez-, alperrik galtzen dira, eta oso zaila da helduak garenean birraktibatu ahal izatea. Horregatik da garrantzitsua estimulu ugariko giro bat izatea; ez inposizioak, baizik eta aukerak edo kontaktuak”.

Lehen haurtzaroko hezkuntza-zerbitzuetan inbertitzeko beste arrazoi bat eman zigun 2000ko Ekonomiako Nober saridun Heckman-ek, zeinak zenbait alderdi garrantzitsu azpimarratu baitzituen Reggio Emilia lehen aldiz bisitatu zuenean. Honako hau dio: “Ez naiz Reggioren filosofian aditua, baina hemen hainbat erantzun aurkitu ditut nire ikusmoldearekin koherentean direnak; horren arabera, giza garapenerako ez dira gaitasun kognitiboak soilik behar, ezpada giza, emozio eta harreman gaitasunak ere, zeinei hainbesteko garrantzia ematen ari baitzaie hemen. Eskolaurreko prestakuntza da, hain zuzen ere, etorkizuna azaltzeko faktore erabakigarrietako bat, bai eta lanpostuan ikasteko aukerak ere. Eskolaurreko prestakuntzan defizita badago, ondorio okerrak izanen ditu hurrengo bi faseetan: geroko eskolan eta lanean. Horrenbestez, politikak, familiengandik hurbil badaude eta kalitatezko hezkuntza-zerbitzuak eskaintzen badituzte, oso eraginkorrak gerta daitezke giza kapitala areagotzeko. Oso garrantzitsua da kalitatezko baldintzak sortzeko inbertitzea hezkuntzan, eta horrek zerikusi handia dauka ekonomiarako funtsezko hautuak egitearekin. Umeen zat elkarrizketarako eta arrazoiketarako baldintzak, sormen eta elkartasun testuinguruak sortzea esan nahi du, neska-mutikoei beren ideiak eta pentsamenduak adierazi ahal izan ditzaten. Hautu hori ez da inondik ere hautu neutrala”.

Irakaskuntza publikoaren kalitatea hobetzeko ituneko 11. apartatuko 9. puntuan jasotzen denez –Nafarroako Gobernuak itun hori betetzeko konpromisoa hartu du–, “azterlan bat eginen da, ikusteko ea Otik 3 urtera bitarteko zikloa Hezkuntza Departamentuaren kudeaketaren barruan sartu ala ez, ukitutako gainontzeko administrazioekin lankidetzan”. Bide hori aurreko legegintzaldian hasi zen jorratzen, eta espero dezagun legegintzaldi honetan berandu baino lehen burutzea.

Gainera, Otik 3 urtera bitarteko zikloaren aldeko apustu garbia egiten da egungo Nafarroako Gobernuaren ahalbidetu zuen programa-akordioan,

Hezkuntzari buruzko kapituluaren 25. puntuan ikus daitekeenez: “Zero eta hiru urte bitarteko haurren eskolaratzea handitu haur-eskoletan, doakotasuneranzko eta unibertsaltasuneranzko bidean, eta familia zaurgarrietatik hasirik,(...). 0-3 zikloa finantzatu kalitate-estandarren arabera eta legerregulazioarekin, eta 3 eta 12 urte bitarteko ikastetxeetan adinez beherakoei ematen zaien arreta-ordutegia zabaldu”.

Hori guztia bat dator Otik 6 urtera bitarteko etapari buruz Geroa Baik beti egin duen defentsa irmoarekin: hezkuntza-etapa bat da, pertsonen garapenerako funtsezkoa. Hori da Nafarroan azken urteotan egiten eta jorratzen ari diren ekimen eta proposamen guztien ildo nagusia, zerbitzu horren Otik 3 urtera bitarteko unibertsaltasunerantz eta doakotasunerantz urratsak egiten joateko.

Gauzak horrela, koherentzia hutsagatik bada ere, uste dugu planteamendu hori bera egin behar dela Otik 6 urtera bitarteko etapan ikasgelara joan ezin diren neska-mutikoei, derrigorrezkoa ez izateagatik etxeko laguntzatik kanpo geratzen direnei, dagokienez,

Horregatik guztiagatik, ondoko erabaki proposamena aurkezten dugu:

– Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua premiatzen du, Hezkuntza Itunak III. apartatuan (4g puntuan) jasotzen duenari jarraikiz, ospitaleratuta dauden edo etxeko arreta behar duten ikasleei laguntza emateko programa indartu dezan, eta, hartara, Otik 6 urtera bitarteko etapa programa horren barruan sar dezan, halako moduan non zerbitzu hori bermatuko baitzaie eskaera hori egiten duten Otik 6 urtera bitarteko neska-mutikoei.

– Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua premiatzen du, Hezkuntza Itunak III. apartatuan (4g puntuan) jasotzen duenari jarraikiz, etxeko laguntza Hezkuntza Departamentuko irakasleekin ematearen bideragarritasunari buruzko azterlana burutu dezan.

Iruñean, 2019ko abenduaren 27an

Foru parlamentariak: Nuria Medina Santos, María Solana Arana eta María Luisa De Simón Caballero



**Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere aldekotasuna agertzen baitio LGTBI+ kolektiboari eta bere elkartasuna adierazten baitio Koldo Martínez Urionabarrenetxea senatari autonomikoari.**

*ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2020ko urtarrilaren 7an egindako bilkuran, ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak bere aldekotasuna agertzen dio LGTBI+ kolektiboari, eta LGTBI+ pertsonen halakoak izate hutsagatik pairatzen duten askotariko bazterkeriak desagerrarazteko lanean jarraitzeko konpromisoa hartzen du, bai eta neurriak hartzekoa ere, pertsona guztien egiazko berdintasun eraginkorra lortzeko bidean aurrera egiteko, alde batera utzita haien sexu-orientazioa eta sexu- edo genero-identitatea.

2. Nafarroako Parlamentuak erabat arbuiatzen ditu jarrera eta portaera homofoboak, uste baitu onartezinak direla eta erakusten dutela oraindik lan handia dugula egiteko sentsibilizazioaren eta kontzientziazioaren bidean.

3. Nafarroako Parlamentuak elkartasuna adierazten dio Koldo Martínez Urionabarrenetxea senatari autonomikoari, duela gutxi jasan duen eraso homofoboa dela-eta” (10-20/DEC-00001).

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak adierazten baitu Estatuko erakundeak aldeztu dituela eta haiekin argiro identifikatzen dela.**

*ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2020ko urtarrilaren 7an egindako bilkuran, ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak adierazten du Estatuko erakundeak aldeztu dituela eta haiekin argiro identifikatzen dela, bera bezala haiek ere 1978ko Konstituzioa onetsi zenetik gure herrialdean sorturiko Zuzenbide Estatuaren konpromiso sozial eta demokratikotik sortuak baitira.

2. Nafarroako Parlamentuak Bildu formazio independentistari eskatzen dio sar dadin behingoz historian eta ETA talde terroristaren krimenak errekonoziti eta kondena ditzan.

3. Nafarroako Parlamentuak indar politiko eta erakunde guztien konpromisoa agertzen du oraindik ebatzi gabeko kasu ugariak argitzen laguntzeko” (10-20/DEC-00002).

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak erabat errefusatzen baitu pasa den azaroan zenbait gizonen emakume bati Orkoien eta Iruñean eginiko sexu eraso eta bere elkartasuna eta aldekotasuna agertzen baitie biktima izandako emakumeari eta haren familiari.**

*ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2020ko urtarrilaren 7an egindako bilkuran, ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak erabat errefusatzeko du pasa den azaroan zenbait gizonen emakume bati Orkoien eta Iruñean eginiko sexu erasoak.

2. Nafarroako Parlamentuak bere elkartasuna eta aldekotasuna agertzen dizkie aipatu sexu erasoaren biktima izandako emakumeari eta haren familiari.

3. Nafarroako Parlamentuaren ustez, sexu batek bestea menderatzearen adierazgarri gorenaren da sexu-indarkeria, bai eta emakumeen integritatearen eta askatasunaren aurkako atentatu handi bat ere.

4. Nafarroako Parlamentuak irmoki errefusatzeko du emakumeen aurkako indarkeria oro, indarkeria matxista modu ororekiko tolerantziarik batere ez duela izan adierazten du eta indarkeria mota hori desagerrarazteko, segurtasuna hobetu eta emakumeek edozein inguruetan

askatasuna erabat baliatzeko lan egiteko konpromisoa agertzen du.

5. Nafarroako Parlamentuak herritarrei gonbit egiten die ez daitezkeen ezer egin gabe gelditu emakumeen aurkako indarkeriaren eta erasoaren aitzinean, eta emakumeek beren harremanei, gorputzari eta sexualitateari buruz erabakitzearen eskubidea dutela erreklamatzeko.

6. Nafarroako Parlamentuak bat egiten du Iruñean egiten diren deialdiekin eta komunikatuekin eta Orkoien urtarrilaren 6rako eginiko deialdiarekin, eta herritarrei dei egiten die mugimendu feministak deitzen dituen protesta-ekitaldietan parte har dezaten.

7. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Foruzaingoa zorientzen du hain azkar eta modu eraginkorrean jarduteagatik; izan ere, sexu erasoaren ustezko egileak epailearen esku uztea lortu du”. (10-20/DEC-00003).

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

**Galdera, Nafarroako enpresek azken 15 urteetan aitortutako enpresa-galere-  
ren guztizko kopuruari buruzkoa.****MARÍA LUISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK EGIN DU**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko urtarrilaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Luisa De Simón Caballero andreak aurkezturiko galdera, Nafarroako enpresek azken 15 urteetan aitortutako enpresa-galeren guztizko kopuruari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoko foru parlamentari Marisa de Simón Caballerok, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 14.2 artikuluan ezarritakoaren babesean, honako galdera

hau egin du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Gauza ondo jakina da enpresek azken 15 urte-  
etako ekitaldi ekonomikoetako galerak konpentsa-  
tzen ahal dituztela sozietateen gaineko zergan.

Galera-kompentsazio horiek enpresa handien zerga-saiheste kalkulazina eragiten dute urtero, zeinaren bidez gure zerbitzu publikoen finantzaketa sendotzen ahalko baitzen zalantzarik gabe.

Horregatik guztiatik, Nafarroako Gobernuko Ekonomia eta Ogasun Departamentuari galdetzen diogu ea guztira zenbat egiten duten Nafarroako enpresek azken 15 urteotan deklaratu dituzten enpresa-galerek.

Nafarroako Gobernuko Ekonomia eta Ogasun Departamentuari orobat galdetzen diogu ea guztira zenbat egiten duten Nafarroako enpresek sozietateen gaineko zergan azken 5 urteotan egini-  
niko galeren konpentsazioek.

Iruñean, 2019ko abenduaren 17an

Foru parlamentaria: Marisa de Simón Caballero

## **Galdera, atletismoa pista estalian egin eta horretan entrenatzea ahalbidetuko duten azpiegiturak eraikitzeo aukera ezberdinen kostuari buruzkoa.**

*MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko urtarrilaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkezturiko galdera, atletismoa pista estalian egin eta horretan entrenatzea ahalbidetuko duten azpiegiturak eraikitzeo aukera ezberdinen kostuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Kultura eta Kiroleko kontseilari Rebeca Esnaola Bermejo andreari, idatziz erantzun dezan:

Parlamentari naizen honek jakin nahi dut ea Kultura Departamentuan eta Nafarroako Kirol Institutuan zer estimazio darabilzuen atletismoa pista estalian egin eta horretan entrenatzea ahalbidetuko duten azpiegiturak eraikitzeo aukera ezberdinen kostuari buruz.

Iruñean, 2019ko abenduaren 19an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

## **Galdera, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko fisioterapeuta izateko lan-eskaintza publikoari buruzkoa.**

*CRISTINA IBARROLA GUILLÉN ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko urtarrilaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkezturiko galdera, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko fisioterapeuta izateko lan-eskaintza publikoari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Cristina Ibarrola Guillén andreak, Legebiltzarren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzurako fisioterapeuten lan-eskaintza publikoa dela-eta, navarra.es atarian informazio publikoa zegoen azterketa egiteko aurreikusitako datari buruz (2020ko apirila), baina informazio hori erretiratu egin zen gero.

Zer arrazoi dago lan-eskaintza publiko hori geldiarazteko?

Noizko aurreikusten da hasiera batean 2020ko apirilera programaturako azterketa hori?

Ba al dago Nafarroako Gobernuaren lan-  
eskaintza publikoko azterketa gehiago, zeinaren  
azterketaren data argitaratuta egonik geroratu edo  
geldiarazi baita? Zergatik? Nafarroako Gobernuak  
noizko aurreikusten du azterketa horietako bakoitza?

Iruñean, 2019ko abenduaren 23an

Foru parlamentaria: Cristina Ibarrola Guillén

## **Galdera, aberaste bidegabearen egoeran dagoen “San Juan de Dios Ospitalearekin itundutako zerbitzuak” izeneko kontratuari buruzkoa.**

### **BAKARTXO RUIZ JASO ANDREAK EGIN DU**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko urtarrilaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bakartxo Ruiz Jaso andreak aurkezturiko galdera, aberaste bidegabearen egoeran dagoen “San Juan de Dios Ospitalearekin itundutako zerbitzuak” izeneko kontratuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko ele-  
dun Bakartxo Ruiz Jaso andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

PES-00077 galderari emandako erantzunean, Nafarroako Gobernuak urriaren 11n igorri zidan aberaste bidegabea ekarri duten itunen eta kon-

tratuaren zerrenda. Horietako bat deigarria da, zifraren muntagatik. Hauxe, hain zuzen ere:

– Kontratuaren izena: San Juan de Dios Ospitalearekin itundutako zerbitzuak. Aberaste bidegabearen hasieraren data: 2018-07-16

– Aberaste bidegabearen bidez ordaindutako zenbateko metatua, 2019ko abuztuaren 31n: 60.729.262,13 euro.

– Aberaste bidegabea gertatzeko arrazoiak: Plegu berriak egiten ari dira.

Informazio hori ikusita, honako hau galdetzen diogu Nafarroako Gobernuari:

– Urtebete baino pixka bat gehiago igarota 60 milioi baino gehiago metatu dira. Nola da posible? Ordainketari buruzko informazio xehakaturia eta banakaturia eskatzen dugu.

– Erantzunean esaten da plegu berriak prestatzen ari direla, baina bi hilabete geroago, abenduaren 18an, Osasuneko kontseilariak adierazi zuen berriazko lotura-hitzarmen bat prestatzen ari zirela. Zein da egiaz egoera? Zer aurreikuspen darabilzue? Kasu honetan gizarte-itunei buruzko legea aplikatzea darabilzue gogoan? Ezezkoan, zeintzuk dira arrazoiak?

Iruñean, 2019ko abenduaren 26an

Foru parlamentaria: Bakartxo Ruiz Jaso

## **Galdera, gizarte zerbitzuetan politika publikoetako beste esparru batzuekin integratutako lana bultzatzeko lan-ildoei buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Patricia Perales Hurtado andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, gizarte zerbitzuetan politika publikoetako beste esparru batzuekin integratutako lana bultzatzeko lan-ildoei buruzkoa. Galdera 2019ko urriaren 18ko 25. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2019ko azaroaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Patricia Perales Hurtado andreak galdera egin du Gizarte zerbitzuetan politika publikoetako beste esparru batzuekin integratutako lana bultzatzeko lan-ildoei buruz (10-19/PES-00110). Hona Nafarroako Gobernuak Eskubide Sozialetako kontseilariak horri buruz informatzeko duena:

Osasunarekin integratutako lanari dagokionez, berariazko unitate administratibo soziosanitario bat sortu dugu, departamentuari atxikia. Unitate horrek erantzuna emanen dio legegintzaldiko akordioak neurriari, hau da, arreta integratu soziosanitarioaren esperientzia ebaluatzeari eta Nafarroako gizarte-zerbitzuetako eremu guztietara hedatzeari; horren barruan sartzen dira Tafallako eremuan susperraldi zerbitzuak kontratatzea, esperientziaren ebaluazioa bera eta historia integratu sozio-sanitarioaren garapena, eta, azkenik, gainerako arloetara hedatzearen egutegia ere eginen da.

Hezkuntzarekin integratutako lanari dagokionez, garrantzitsuena Gizarteratzeko Plan Estrategikoaren garapenarekin lotuta dago. Plan horrek Hezkuntza Departamentuarekin eta Eskubide Sozialen Departamentuarekin batera jarduteko hainbat neurri biltzen ditu, hala nola "gizartean baztertuta dauden ikasleei" buruzko batzorde misto bat sortzea, pobrezia eta gizarte-bazterketaren arriskuaren ondorioz hezkuntza-premia espezifikoak dituzten ikasleen kontzentrazio handia duten ikastetxeak identifikatzea, eta abar. Era berean, garrantzitsuak dira Nafarroako ijitoen garapenerako estrategian jasotako ekintzak, bes-

teak beste, Hezkuntza Departamentuarekiko lankidetzan eta sarean lan egiteko ekintzak jasotzen baititu (irakasleen prestakuntza, eskola-absentismoari heltzea, eskola-sustatzaileak eta "bigarren aukerako" neurriak).

Etxebizitzari eta gizarte-zerbitzuei buruzko ekintza-ildoei dagokionez, Gizarteratzeko Plan Estrategikoan jasotako neurrien garapena aipatu behar da. Plan horretan, baterako zenbait jarduketak aurreikusten dira; horien artean honako hauek nabarmendu behar dira:

- Etxebizitzaren errolda bakarraren erabilera sustatzea.
  - Alokairu sozialeko etxebizitzaren sustapenetan sartzeko baldintzak berrikusten laguntzea.
  - Alokairu-poltsa sustatzea.
  - Etxebizitza Zerbitzuko figura tekniko espezifikoarekin lankidetzan aritzea, gizarte-zailtasunak dituzten biztanleei zuzendutako baliabideak diagnostikatzen, diseinatzen eta planifikatzen.
  - Etxebizitzaren Foru Funtsetan erabileran laguntzea gizarte-larrialdiko egoerarako eta/edo etxebizitzarik gabeko egoerarako, aldeztu aurretik haren erabilera egokiena aztertuz, betiere xedebiztanleriaren definizioa eta kudeaketa-formulak kontuan hartuta.
  - VAIS programan laguntzea, eta, gainera, oinarrizko gizarte zerbitzuak VAIS etxebizitza-protokoloetan sartzeko, programa kudeatzen duten entitateekin koordinatuta.
  - Gizarteratzeko Eskubideari buruzko Informazio Sistemaren (GEIS) erabilera zabaltzea VAIS programan sartzeko egokitasunaren balorazioan.
  - Etxebizitzaren arloko Gizarteratze-taldearekiko (EISOVI) lankidetzak.
- Azkenik, enplegu-zerbitzuen eta gizarte-zerbitzuen arteko lan integratuari dagokionez, elkarrekin lotutako hiru jarduketak-ildo daude:
- Lehenengoak ERSISI proiektuaren ebaluazioarekin eta, hala badagokio, transferigarritasunarekin du zerikusia. Jarduketak-ildo horrek honako neurri hauek jasotzen ditu:
    - a) Aldaketa kulturalerako ekosistema bat sortzea, gizarte-zerbitzuen eta enplegu-zerbitzuen

arteko lankidetzara bideratuta. Horretarako, profesionalentzako ikasketa- eta prestakuntza-taldeak taldeak programatu dira.

b) ERSISI proiektuaren jarraipen egokitua egitea Atarrabian, Uhartan eta Burlatan (AUNAREN pilotajea) eta ERSISIn beraren eremuetan.

c) Eskala handiagoko transferentziaren bideragarritasuna aztertzea. Horretarako, beharrezkoa da tresna informatikoak finkatzen eta baliozkotzen jarraitzea eta aurrera egitea; proiektuaren amaierako ebaluazioa aztertzea, eskala handiagoko transferentziaren azken ereduari eusten dioten ebidentzia sendoetan oinarritzeko; biztanleriaren segmentazio-elementuak lantzea, oinarritzeko gizarte zerbitzuetatik eta enplegu-agentzietatik erantzun bateratuak definitu ahal izateko; eta ereduaren kostuen azterketa egitea.

- Bigarrena, Gizarte Babesaren eta Garapenerako Lankidetzaren Zuzendaritza Nagusiaren eta NEZ-NLren artean ezarritako protokoloarekin jarraitzea, errenta bermatua jasotzen dutenen betebeharren jarraipena egiteko, lan-eskaintzen eskuragarritasunari eta haiek lortu ahal izateari dagokionez eta prestakuntza- eta orientazio-ekin-tzetan parte hartzeari dagokionez.

- Eta hirugarren jarduketa-ildoak Gizarteratzeko Plan Estrategikoan aurreikusitakoarekin du zerikusia. Plan horretan, besteak beste, honako neurri hauek agertzen dira:

- Baztertuta dauden edo baztertuta geratzeko arriskuan dauden pertsonen enplegarritasuna handitzeko jarduketak bultzatzea: gaur egun, tria-

je- eta segmentazio-tresnak lantzen ari dira, enplegarritasun-maila eta gizarte-bazterketako maila desberdinak kontuan hartuta (ERSISI proiektuan ere sartuta dago).

- Sistema informatikoen elkarreragingarritasunean, enplegu-zerbitzuen eta gizarte-zerbitzuen artean informazioa partekatu ahal izateko.

- Lan egin aurreko prestakuntza eta gaikuntza, plazak eta/edo beka erreserbatuz.

- NEZ-NLren esku-hartze eredu berria mantentzea eta sakontzea, oinarritzeko gizarte zerbitzuekin lankidetzan.

Azkenik, hezkuntzaren, osasunaren eta enpleguaren esparruetan, oro har, Oinarritzeko Laguntzaren eta Gizarteratze-lanaren Zerbitzuak gizarte-zerbitzuen oinarritzeko laguntzaren berrantolaketaren esparruan gauzatuko dituen koordinazioa eta bultzada gertatuko dira; horrela, oinarritzeko gizarte-zerbitzuen multzoan sartuko dira Tafallako (sozio-sanitarioa) eta ERSISIn (gizarte-zerbitzuak eta enplegu-zerbitzuak integratzea) aipatutako esperientzien ikaskuntzak, bai eta oinarritzeko laguntzaren sareko lana koordinatu eta bultzatzea ere.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2019ko azaroaren 11n

Eskubide Sozialetako kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

